

IKASLEEN AXOLAGABEKERIA OTE EUSKARAZ EZ MINTZATZEA

Azken aldi honetan hainbat gogoeta egin izan ditugu irakaskuntza munduan lanean dihardugun irakasleok, gure ikastetxeetako eta, hainbatean, herrietako gaztetxoek euskararen ezagutza maila ona izan arren, zergatik jotzen duten erdarara aztertzen.

Horrek geure buruei hainbat galdera egitera bultzatu gaitu. Galdera horiek bereziki hurrengo hauen inguruan laburbilduko nituzke:

- Nola jokatu irakaskuntzako eguneroko jardueretan euskararen jabeakuntza osoa lortzeko?
- Zer egin euskararen erabilera ahalbideratzeko ikastetxe eremuan eta kanpoan
- Nola zabaldu ikasleen euskararen erabilera esparruak?

Lan honetan eskaini nahi dudana gogoeta, beraz, hiru alor horien inguruan gauzatuko da, oso garrantzitsua uste baitut egiten ari garen lana aztertzea eta etorkizunari begira urrats berriak ematea.

1. NOLA JOKATU IRAKASKUNTZAKO EGUNEROKO JARDUERETAN EUSKARAREN JABEKUNTZA OSOA LORTZEKO?

Hauxe dugu geure buruari behin eta berriro egiten diogun galdera larria. Izan ere eguneroko jardueran euskararen jabe-

tza agertzea lortu ezik zertarako ditugu irakastetxeak? Beteko ote dituzte gizarteak eskatzen dizkien helburuak? Jo dezagun, bada, atalik atal arazoa aztertzeraz.

1.1. IRAKASTETXEKO HEZKUNTZA-TRATAERA PROIEKTUA HELBURU HORI LORTZEKO TRESNA BIHURTZEA.

Lanbidetzat irakaskuntza dugunok, bertoko eta kanpoko ikasleak integrazteko asmoz profesionalki ongi jokatu nahi badugu, behintzat, bertoko hizkuntzan eta kulturen murgilduta egin beharko dugu.

Hori horrela delarik, ikastetxeetako hizkuntza trataerari dagokionez, aurrez-aurre eduki beharko dugu planteamendu hori. Eta, jakina, horrelako planteamendu bat aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da hartutako erabakiak baliabidez hornitzen direla jokatzeko. Egin-eginean ere, jarduera progresiboaren bidez lortzen da ikasleek normaltasun osoz euskara erabiltzea.

Ikastetxeak, baina, egin nahi duena burutzeko administrazioaren babes moral eta materialak behar ditu. Diru laguntza ematea ongi badago ere, euskara dakitenen giza baliabideak eskuratu behar ditu.

Guzti honetan, **helburuaren funtsa**, euskararen jabeakuntza osoa lortzea edo, beste era batera esanda, **ikasleak euskara esparru guztietan erabiltzeko gaitzea da**. Beraz ikastetxeak bere proiektua helburu hori lortzera bideratu behar du, eta horretan jarri ahalegin guztiak.

1.2.- IRAKASGAIK EUSKARAZ EMANEZ SOLIK LORTU OTE DAITEKE EUSKARAREN JABEKUNTZA OSO HORI?

Denboraren joanak erakutsi digu ez dela nahikoa euskararen statusa dagoen moduan egon da, irakasgaietan euskara erabiltze hutsa; ikasleak irakasgai guztiak euskaraz ematea baloratu beharreko kontua bada ere, ez du ziurtatzen euskararen jabeakuntza osoa lortzea.

Ez dira, honekin bakarrik, euskararen erabiltzaile aktiboak bihurtzen. Honek ez ote den, euskara gehienetan ikasgelako une jakin bateko hizkuntzatzat jotzen delako edo beste edozein irakasgairen antzera hartzen dutelako gertatzen pentsatzera narama.

Batzuk dioten moduan, ikasleen axolagabekeria ote?.

Nire ustez, ez. Ez, behintzat, eurena bakarrik. Euskara ez-formalerako tresneria falta handia izatearen seinale argitzat joko nuke, ikastetxetik irten orduko erdarara jotze hori. EUSKARAZ JAKIN ETA ZERGATIK EZ DUTEN EGITEN ENTZUN BEHAR IZATEN DUTE IKASLEEK SARRIEGI, ETA ASPERTZERAINO.

Ikasleen axolagabekeria hutsa balitz edo jokatu ohi dugu askotan. Horregatik da hain normala erretolikaka edo agirika jardutea. Ez dago gaizki ez dezatela erdal giroaren eraginez jardun gogoraraztea, baina, beti ere, kontuz! Ikasleei, behin eta berriro, EUSKARAZ egiteko eskatzea ia alferrikakoa izan daiteke. Ez ote da, gainera, igeri ondo ez dakienari bere burua uretara botatzeko agintzea bezala?

Ez du ezertarako balio, gazteari, euskara esparru guztietan erabiltzeko gaituak ez daudenean, euskaraz hitz egiteko agintzeak edota eskatzeak; gela barruan euskaraz ondo moldatu arren, askotan euskarara jo beharrean erdarara jotzen ba dute, kanpoko eremu askotan euskararen erabilera normaldu gabe dagoelako edota babes-eza eta ziurtasun falta ikusten dutelako izaten da. Horrela, erdaraz ase ohi dituzte, zoritxarrez, esparru horietako hainbat komunikazio beharrian.

Komunikazioa arrakastatsu burutu nahi izaten dugu guztiok; are gehiago ume edo gaztetxoek. Horrela, erronka handiaren aurrean jartzen gaitu, ez daudela ikasitakoa, orokorrean, bestelako harremanetan erabiltzeko trebatuak ikustean.

Nola antolatu, baina, harreman eta jolas giroko komunikazio sareetako erabilera ikastetxeetan eta gizartean?

Garai baten uste genuen, irakasgaietan euskara erabiltzea nahikoa izango zela jabekuntza osora heltzeko; eta une edo toki konkretu batzutan izan ere izan zitekeen; gaur egun, ostera, salbuespen batzuk salbuespen, ezetz ikusi da.

Hori dela eta, ikastetxe bakoitzeko hizkuntza trataera bertako irakaskuntza-proiektuan jaso behar, egoera bakoitzari irtenbidea bilatzeko.

.D ereduetan eta, ikasgelan normaltasunez euskara egin arren, jabekuntza osotu gabe dutelako edo, harreman eta jolas giroan erdarara jotzen dute ikaslerik gehienek.

Beste errealitate estralinguistikoa bat ere, tartekatu izan da azken urteotan, eta zuzenean ez bada ere, oztopo gerta daiteke, euskara akademikotik jabekuntza osora heltzeko; ikasleek euren ume eta gazte taldeetan erdara hautatzea dugu.

Hori, beste esparruetan euskaldun aktiboak direnekin, helduekin, harremanik ez izatearen edota oso modu puntualetan izatearen ondorio izan ohi da.

Jokabide horrek, lagunekin euskaraz baino erdaraz hobeto moldatzen direla edo komunikazioa erdaraz euskaraz baino arrakasta handiagoz burutzen dutela adierazte du.

Gazte-gaztetatik integratzen ziren lehenago helduen munduan, nahiz eta eskolan erdara ikasi, bizitzako esparruetako euskara osatzeko abagune ederra bizi izan genuen zenbaitek.

Gaur egun, ostera, umeak umeekin eta gazteak gazteekin, lehenago baino denbora luzeagoan erlazionatzen dira eta bizitzako euskara erabili beharrean, bizitzako edo giroko erdara erabiltzen dute. Izan ere, euskara osatzea eta aberastea nahiko zaila da berdintsu dakitenen artean.

Gazteen ohiturak aldatzerik ez dagoenez, beste irtenbideren batzuk asmatu beharko ditugu, euskaldun aktiboak bihurtu

nahi baditugu, euskararen jabeakuntza osora heltzea nahi badugu, behintzat.

Ikastetxeetan euskara sartzen hasi zenetik hona, aurrera-atzera handiak gertatu dira, normala den bezala. Ez da pentsatu behar, gainera, akatsik gabeko prozesua burutzerik. Garrantzitsua da, bestetik, emaitzarik ematen ez duenari tiraka ibiltzea alperreko bidea dela konturatzea.

Ibilbidean ateratzen doazen faktoreak ahaztu gabe, eta inori erruak botatzen ibili gabe, unean uneko tratamenduak aplikatuzetik etorriko dira bilatu ditugun emaitzak.

2. ZER EGIN EUSKARAREN ERABILERA AHALBIDERATZEKO IKASTETXE EREMUAN ETA KANPOAN?

Harremanetako hizkuntza izateko euskara hautatzen ez denean, ezinbesteko lana bihurtzen da horren zergatiak aztertzea jotzea. Aurkako faktoreak zeintzuk diren antzemateak eta tratamendu egokia ezartzeak aterako gaitu zurrumbilo horretatik. Bakoitzak bere ikastetxeko euskaren erabileraren diagnostia egin ondoren azaleratzen dira ondoen tratamendurako bideak.

Esparruz esparru aztertzeko aukera izan dugunok, badakigu zertan egin den huts eta, baita ere, zer nolako egoeran jarraitzen dugun erremediorik jartzen ez den kasuetan.

Horrela, bada, hiztunen hizkuntza-errealitatearen argazkia atera dezakegu. Jakin badakigu, ondotxo ere, esparru bakoitza harreman-sare batez inguratu behar dela; beraz, harreman sareak definitzen ditugun heinean, hasiko gara neurriak jartzen.

Sare horietan euskararen erabilera ahalbideratzeko, ezinbestean harreman-sareetan eragin beharko da; **motibazioak**, **ezagutzak** eta **erabilerak**, hiztuna erabiltzaile aktibo egiten dutenez ondo landu beharko da bakoitza.

Nola zabaldu, baina, ikastetxean euskarari esparruak?

1. Ikasgelako hizkuntza, akademiko soil modura hartua izan ez dadin, irakasteko moduak ere, birplanteatu beha-

rra ager daiteke. Zergatik, baina? Euskara formala programatzerakoan hiztunaren hizkuntza errealitatean txertatuz egitetik hasteak, alperreko lan asko saihestu dezakeelako. Ikastetxeko hizkuntza komunitatea trinkotzeak planteamendu bateratua erabiltzea eskatzen du, irakasgaiak desberdinak izan arren.

2. Edozein ikasgai ematen delarik ere, bertoko kulturaren erreferentziaz horniturik irakastea. Zoritzarrez, nahiko normala izaten da euskal kultura irakasteko ardura **euskara** eta **literatura** ematen dutenen pentsutan uztea. Bertoko kulturaren erreferentziaz hornitu beharko lirateke irakasgai guztiak.
3. Gune erdaldunetan, gainera, zailagoa izaten denez etxean erreferentzia horiek aurkitzea, aparteko arreta eskaini beharko zaio arlo honi, ikastetxeak tratamendu bereziak martxan jarriaz. Gaur egungo hedabideen eragin bortitzek, neurririk hartu ezean, hizkuntza eta kultur nabardurak ezabatzeko adineko indarra dute.

Hizkuntzen jabeakuntza eta erabilerari buruzko teoriak ere asko iradokitzen digute gai honetan: edozein hizkuntza gutxitutan bezala gurean ere, honako hiru axima hauek hartu behar ditugu gogoan:

- Hizkuntza gutxituetako hiztunentzat, hizkuntza garapen osoa lortzea eta garapena euskaraz lortzea, biak bat bera dira.
- Estatu baten menpean kokaturiko hizkuntza-komunitate gutxituaren kasu denean, konponbideak planteatzeko orduan, ezin da utzi arazoaren konponketa, besterik gabe, estatuaren ekimenaren pentsutan; irtenbidea, komunitate hori trinkotuz lortuko da hein handi batean.
- Izateko gogoia izan arren, izatea bera mehatxaturik duen hizkuntza-komunitatearen normalizazioa, egungo zein etorkizuneko hiztunei ezezik, estatuko hiritar guztiei, oro

har gizateria osoari, interesatzen zaio, garapena norabide espezifikotik bideratzeko.

Noiz esan dezakegu, haina, hizkuntza bat gutxitua dela?

- **Hiztunen beharrizan edo funtzio guztiak betetzeko erabiltzen ez denean.**
- **Funtzio hauek bete behar ditu edozein hizkuntzak normalizatua izateko**

HIZKUNTZA NORMALIZATUETAKO FUNTZIOAK	
FUNTZIO INTERNAZIONALA	Izaki-mintzaira (den guztia)
ZIBILIZAZIO-FUNTZIOA	Zibilizazio-funtzioa (ulertzen den oro)
FUNTZIO NAZIONALA	Nazio-mintzaira (ezagutzen den oro)
FUNTZIO LOKALA	Bertako hizkuntza(partaide oro)
FUNTZIO PROFESIONALA	Lanbide- kodea(bizi den oro)
FUNTZIO FAMILIARRA	Barne-Hizkera(maite den oro)
IDENTITATEA	Pentsabidea (nirea)

Euskararen kasuan, HIZKUNTZA GUTXITUA DA EZ DUGULAKO FUNTZIO GUZTI HORIETAN ERABILTZEN. Guk euskara funtzio guztietarako erabiltzen ez dugun adinean, euskara bera ez-gaitu bihurtzen da hurrengo hizkuntza legeek adierazten duten bezala:

- Gu ez gara ezer hizkuntzarik gabe, baina hizkuntza ere ez, gu gabe (euskararik gabe ez gara euskaldun, eta euskaldunik gabe ez dago Euskal Herririk).
- Norberak edo komunitateak daukan hizkuntza gaitasuna berbera du hizkuntzak ere (euskararen kasuan ere bai)
- Hitzunek garatzen dituen hizkuntza-aukerak berberak garatzen ditu hizkuntzak hitzunen bidez.
- Hizkuntza orok du eskubidea, hizkuntza-komunitate baten bidez bere bizia ziurtatzeko.

Gauzak horrela, bada, hizkuntzen lege eta funtzionamendu orokorretik, hizkuntza bakoitzaren egoera hobetzea komeni izango da beraren biziraupena ziurtatzeko.

Globalizazioaren aro honetan beharrezkoa da nabardura batzuk zaintzea, bestela, normaldu beharrean, desagertu egingo zaigu euskara eta.

Hezkuntzako harreman sareetan eragitea dagokigu zuzenezuzenean. Horrek gune sinbolikoen nuklearizazioa eskatzen du:

Euskara eta Euskal kulturaren irakaskuntzan sakontzen goazen adinean tratamendu espezifikokoak kontuan direla jokatzera eramán behar gaitu.

Herrietan euskaldun hiztun aktiboak direnak desaktibatu egiten dira zenbaitetan hiriko giroan, hiriko egituraren eraginez. Herrian euskaldunak direnak hirian ere euskaldun izaten jarraitu dezaten neurririk hartzen ez bada, normala izaten da euskararen bizi-iturri izan beharko luketenak erdaldun aktiboen taldera pasatzea.

3. NOLA ZABALDU IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUAK?

Gure asmorik nagusiena ikasle euskaldunak, hots, euskaraz biziko direnak sortzea izanik, hori lortzeko biderik egokienek bila jardun beharko dugu.

Izan ere asko izan daitezke gure ume eta gazteak erdara erabiltzera bultzatzen dituzten eraginak. Batzuk, ikastetxean euskalduntze-prozesu egokia martxan ez delako jarri. Beste batzuk, hainbat lekutan gizartea euskara zokoraturik duela erata dagoelako. Beste zenbait kasutan, gizarteak izugarritzko aldaketa izan duenez etendura sortu da lehengo bizimoduaren eta gaurkoaren artean. Horrela lehenagoko joko eta harremanetan oinarritutako euskarak ez die gazteei aukerarik eskaintzen beraien izaeraren ildotik euskara bizi ahal izateko.

Aurrerantzean, euskararen gaitasun osoa lortzeko hizkuntza gaitasun osoaren argazkia aurrean dela jokatzeko izango da onena, bestela, alderdi batzuk landu arren, benetako GAITASUN KOMUNIKATIBOAtik urrun ibiliko gara eta

GAITASUN KOMUNIKATIBOA (Gaitasun Pragmatikoa)			
GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA	GAITASUN ESTRALINGUISTIKOA	GAITASUN TESTUALA	GAITASUN LINGUISTIKOA
*TESTUINGURUAREN EZAUGERA *ERABILERA EGOKIA	*ERAGINKORTASUNA *EPIKAZIAZKO KOMUNIKAZIOA	*KOHERENTZIA *KOHESIOA	*BEREZKO GAITASUNA *HIZKUNTZA SISTEMAREN EZAUGERA

Dena den alor honetan kezkatuta gabiltzanok, zerbat dakusagu argi: ez dugula berezko irtenbiderik izango.

EUSKARAZ GAITASUN KOMUNIKATIBO PRAGMATIKO lortzeko, planifikazioak burutzeari ekin beharko diogula etengabe.

Beste modu batera esanda, arreta handiz jokatu beharko dugula, irakasgai guztietan metodologia komunikatiboaren ikuspundua erabiliz, eta harreman eta jolas giroko hizkuntza sareetan eraginez.

Ikasleek euskara esparru guztietan erabil dezaten, hautatutako esparruko korpusa osatu eta erabilera sareak antolatu behar dira. Era berean, euskaren statusa hobetzeko estrategiak eskuratu, erabilera orokortzeko lekuan jarri, bideak zabaldu.

Erabilera sareak irakaskuntzan eta gizartean antolatu behar direnez, irakasle eta ez-irakasleen lana da; beraz, guztion egitekoa eta elkarri lagunduz burutzekoa.

Pilare Baraiazarra Txertudi
(Irakaslea eta Berritzeguneko
Hizkuntza Normalkuntza Teknikaria)